

# ANDONI DEUNA BIZKAITARRA?

**JATORRIZ**

Padua'ko Andoni deunak Euskalerrria'gaz zer-ikusi bereziak daukaz eta batzuk ba-diñoc odolez be, zerbait beintzat euskalduna zala.

Portugal-darra zan jaiotzaz, baiña bere amaren ama euskalduna ei zan.

Pio XII'ak egin eban Portugal'eko zaindari eta Eleizako Irakasle.

\* \* \*

**IZLARIA**

Bere berbaldiak eta irakatsiak adimenbako piztiak be entzuten ei ebezan.

LORETXUAK idaztian edesten danez, bein baten Rimini'n egoala, ango ziñausle edo «hereje»ak egizko sinismenaren argitara ta onoinenaren ontasan-bidera biurtu gura ebazan, baiña ez eustsoen entzuten.

Orduan, goi-argi ta indarrez, ibai ta itxaso-ertzetan jesarrita, asi ei zan esaten: Ibai, erreka ta itxasoko arraiñok entzun: ziñausle gaiztoak entzun gura ez daben ezkerro, zuok entzuk egizue Jainkoaren berbea».

Eta arraiñak ugari urreratu jakozan entzuteko.

\* \* \*

**FERNANDO ALA ANDONI?**

Juan Iñiguez de Ibarгүйen'ek bere **CRONICA GENERAL ESPAÑOLA**»

liburuan diñonez, «Aldi areitan Padua'ko Andoni, Anaidi Txikiko santua, Portugal Erreiñuko Lisboa'koa jaiotzaz, Bateo-izenez Fernando, San Agustin'en Kanonikuen Lagundi'ra sartu zan, baiña Anai Txiki batzuk Marruekos'en martiri egin zirala entzun eban eta Frantzisko Deunaren lekaide-jantzia artzea erabagi eban bere nagusiarren baimena eskatuta.

San Antonio'ri eskiñita egoan lekaidetxe batera sartu zan. Laster asi zan jentea bere billa etorten eta iñork aurkitu ez egian, apaltasunez, praille guztiai, Andoni izenaz deitzeko eskatu eutsen».

\* \* \*

**EUSKALERRIAN**

Bere lenengo alatza, miraria, Prantzia'ko Tolosa'n egin eban.

Gero Naparroa'ko Iruña'ra (orain Pamplona esaten jako), Gipuzkoa'ko Donostia'ra eta inguruetara etorri zan.

Euskalerrian katolikuen fedetik aldentuta bizi ziran asko biurtu ta benetako federa ekarri zituan.

Isil-isilik igaro zan gizon doatsu au Bizkai'tik eta bere amama, Albina etxeko andrea, Sukarrieta errikoa zan lez, bere senideak maitekiro ikertu zituan.

\* \* \*



**IZARO UGARTEAN**

Izaro ugarteko Frantzisko'tarren lekaide-etxean be egon zan. Lekaide-etxe au ugartean, itxaso barruan, egoan, Bermeo ta Mundaka'ren alboan.

Egun batzuk egin zituan an eta Jaungoikoaren izencan, itsu, mutu, erren, elbarri, eskumots eta beste gaiso asko osatu zituan, mirari ugari ta aundiak egiñez.

**LETONA'k**

## B I L L A

Zeure billa nabil.  
Munduko edertasunak beituta gero  
Itxi begiak.  
Izan leiteke olan obeto ikusi  
Dan bikañena.

\* \* \*

Giza antza gaztiak  
beregantzen gaitu  
baña orixe bakarrik ezta gauza asko.  
Goguan daukoz gauza ikusi eziñak:  
narru garrantzi, ondasun,  
maitetasuna, bai dira obiak.

\* \* \*

Geure gogo ileziña, mundu onetan,  
Aragizko ontzian aurkitzen da.  
Ingurutzen gaituzan gauza guztiak,  
Gogo begietan dira ikurrak.  
Bide ertzetan dagozan lora oriak  
Jauna, urre gorritzko txindiak,  
Sakabanatzen dozuz geure oñetan,  
Zeure bezuzak dira, ene Jauna.

\* \* \*

Emetik igaro da...  
dana jantzita bere edertasunez geratu  
da.

\* \* \*

Zeure txistuz deitu  
Artzain On orrek. Biztu ta alai benetan,  
Usain ederrez, Zeure atzian gaituzuz  
ariñetan.  
Zeureganantza nua, gabaz ta egunez  
¿Noiz ikusiko zaitut?  
Aurrera, beti aurrera lañetan...  
Iñok pez ikusten enaunian  
Aurkituko zaitut, ene Jauna!

**UTARSUS**